




Gabonak hurbil eta Olentzero lanean dabil. Mendian, ikatza egiten. Eta Euskal Herri osorako opariak prestatzen. Gutun berezi bat jaso du aurten. Gutuna bustita dago eta kresal usaina du. Norena da eskutitza? Eta zergatik kresal usaina? Zer dago heze eta zer dago gazi? Itsasoko ural Beraz, Itsasoaren gutuna da! Itsasoak idatzi dio Olentzerori, eta opari bat eskatu dio Gabonetarako. Oparia sorpresa izan dadin nahi du Itsasoak. Itsasoari sorpresak asko gustatzen zaizkio-eta. Eta Olentzerok ez dakí zer egin. Zer oparituko dio Itsasoari? Olentzero mendian egoten da urte osoan, egur artean lan eta lan, ikatza prestatzen. Zelan asmatu Itsasoarentzako sorpresa on bat? Nola jakin Itsasoari zer gustatzen zaion?

Se acercan las Navidades y Olentzero está atareado. En el monte, elaborando carbón. Y preparando regalos para todos y todas. Pero este año, ha recibido una carta muy especial. Está húmeda y huele a salitre. ¿De quién será? ¿Y por qué ese olor a salitre? ¿Qué es húmedo y salado a la vez? ¡El agua de mar! Entonces, ¿será una carta del Mar! El Mar le ha escrito a Olentzero, y le ha pedido un regalo para estas Navidades. Pero el Mar quiere que sea una sorpresa. Y es que, le encantan las sorpresas. A Olentzero no se le ocurre qué hacer. ¿Qué le puede regalar al Mar?



Burumakur eta pentsakor, Olentzero basoan barrena doa oinez, ideia on bat topatzeko itxaropenez. Halako batean, zuhaitz baten ondoan, zerbait aurkitzen du. Zer da? Perretxiko bat? Olentzero, makurtu eta astiro hurbiltzen da. Sei punta ditu... izar bat da! Zer egiten du izar batek basoan? Nola iritsi da? Zerutik erori ote? Bat-batean, ahots txiki batekin, izarrak honela dio: "Itsasotik nator". Itsas izar bat! Olentzerok, harrিতeta ez ezin sinetsita, galdetzen dio: "Itsas izar, zer egiten duzu mendian, ur azpian egon beharreean?" Itsas izarrak, bere sei puntak zabaldu eta erantzuna botatzen dio: "Zu laguntzera etorri naiz, gizona! Baina aurretik, eraman nazazu etxera, eta han kontatuko dizut nahi duzuna".

Olentzero se queda todo el año en el monte, rodeado de madera para elaborar carbón. Así que, ¿cómo adivinar qué le gusta al Mar? ¿Cómo saber que sorpresa hacerle? Olentzero cruza el bosque cabizbajo y pensativo, con la esperanza de encontrar una buena respuesta. De pronto, descubre algo al lado de un árbol. ¿De qué se trata? ¿Quizá sea una seta? Olentzero se agacha, y se acerca lentamente. Tiene seis puntas... ¡y es una estrella! Pero, ¿qué hace una estrella en el bosque ¿Cómo ha llegado hasta aquí? ¿Acaso se ha caído del cielo? De pronto, con una vocecita, la estrella le dice a Olentzero: "Vengo del mar". ¡Una estrella de mar! Olentzero no puede creérselo, y le pregunta sorprendido: "Estrellita de mar, ¿qué haces en el monte, en vez de estar bajo el mar?" La estrella de mar, abriendo sus seis puntas le responde: ¡Pero hombre, si he venido a ayudarte! Antes de nada, llévame a tu casa, y allí te contaré todo lo que quieras".



Olentzerok bere esku handiekin itsas izarra hartu, eta etxera eramaten du. Han, izarra ur gazitan sartzen du, eta irrikan esaten dio: "Orduan zuk Itsasoa ezagutzen duzu! Zer opari eraman ahal diot Itsasoari?". Itsas izarrak, birritan pentsatu barik, herri baten izena ahoskatzen du: Zierbena! "Zierbenako herritarrek ezagutzen dute Itsasoa! Zierbenan jakingo dute prestatzen Itsasoarentzako sorpresa goxoa!". Hori entzun eta berehala, Olentzerok ikatza hartu eta eskutitza idazten du, Zierbenako herritar guztiei bidaltzeko, eta itsas izarrari laguntza eskatzen dio: "Zoaz Zierbenara, gutuna eraman etxe guztiara, eta esan Itsasoak oparia eskatu duela. Bakoitzak presta dezala bere opari-sorpresa!"

Olentzero, coge a la estrella de mar con sus grandes manos, y la lleva hasta su casa. Allí, la mete en agua con sal, y ansioso le dice: "Entonces, ¿tu conocerás al Mar!, ¿Qué le podría regalar?". La estrella de mar, sin pensárselo dos veces, pronuncia el nombre de un pueblo: ¡Zierbena! "¡La gente de Zierbena conoce muy bien al Mar! ¡Allí sabrán como prepararle una agradable sorpresa!". En ese momento, Olentzero coge un poco de carbón y empieza a escribir una carta para mandársela a la gente de Zierbena. Después, le pide a la estrella que le ayude en su labor: "Estrellita, ve a Zierbena y reparte esta carta en todos los hogares. Diles a todos y todas que el Mar ha pedido un regalo. ¡Pídeles que cada cual prepare su regalo sorpresa!".



Sei puntadun itsas izarra mendian behera joateko prest dagoela, egiten dio Olentzerok azken galdera: "Itsas izarra! Itsas izarra! Ez didazu zure izena esan!" Eta orduan, itsas izarrak, honela esaten dio: "Aurrean Luzuero, atzean Abxiga, eta nire sei punten izenak hauek dira: Harana edo Valle, Portua edo Puerto, Aldapa edo Cuesta, Kardeo edo Cardeo, Arena edo La Arena eta San Mames". Olentzerok ez du ulertzen, "nik izen bakarra dut..." dio esaten, "zelan ba dituzu zuk, izarbo, hainbeste?". Izarrak irribarre egin, eta diotso joan aurretik: "Hori Itsasoari galdetu! Berak baino ez dakí zergatik!"

Cuando la estrella de mar está a punto de bajar del monte, Olentzero le dice una última cosa: "¡Estrellita de mar! ¡Estrellita de mar! Aún no me has dicho cómo te llamas." Y entonces, la estrella de mar le responde: "Llevo a Luzuero por delante y a Abxiga por detrás, y los nombres de mis seis puntas fácilmente recordarás: Valle o Harana, Puerto o Portua, Cuesta o Aldapa, Cardeo o Kardeo, La Arena o Arena, y San Mamés". Olentzero no lo entiende, "Si yo solo tengo un nombre..." le responde, "Estrellita, ¿cómo es que tienes tantos nombres?". La estrella, riéndose, le dice antes de marcharse: "¡Pregúntaselo al Mar! ¡Solo él lo sabe!".



Eta hala, itsas izarra erreka ertzera doa, inbaur eskola hartzen du, eta gainera igotzen da. Eta errekan behera eta behera, Zierbenara iristen da. Eta ortu, kale eta portu, Olentzeroren gutuna banatu. Zuri ere iritsi zaizu? Orain, zure txanda da. Itsasoari opari bat prestatu eta sorpresa emango diogu. Marrazki bat, poema txiki bat, eskulan bat, nahi duzuna. Zure oparia eta zure lagunena, Zierbena osoko neska-mutilena. Gogoratu: Itsasoari asko gustatzen zaizkio sorpresak!

Y así, la estrella de mar se acerca a la orilla de río, coge una cáscara de una nuez, y montada sobre ella, desciende y desciende río abajo, hasta llegar a Zierbena. Y cruza huertos, calles y puertos, para entregar la carta de Olentzero. ¿Cómo? ¿Que a ti también te ha llegado? Entonces, ahora es tu turno. Prepararemos un regalo para el Mar y así, le daremos una gran sorpresa. Dibujos, manualidades o poemas, ¡cualquier cosa! Tu regalo y el de tus amigos y amigas, el de todos los niños y las niñas de Zierbena. Y recordad: ¡al Mar le encantan las sorpresas!




Olentzero Gabon gauean etorriko da, eta ortu, kale eta portu, opari guztiak bilduko ditu. Botila batean sartuta, txalupan bidaliko ditu. Denok batera, esan, bat, bi eta hiru: egin opari itsasoari... opariak itsasoratu!

Eta ez ahaztu! Orduan galdetuko diogu Itsasoari, itsas izarrak zergatik dituen hainbeste izen, punta bakoitzaren izena nondik datorren.

Olentzero vendrá en Nochebuena, y cruzará huertos, calles y puertos para recoger todos vuestros regalos. Y metidos en una botella, los enviará en una barca. Un, dos, tres, decid todos a la vez: ¡huerto, calle o puerto, regalos al Mar!

¡Y recordad! En ese momento le preguntaremos al Mar por qué tiene tantos nombres la estrella de mar y de dónde vienen.



# GABONETAKO EGITARAUA PROGRAMACIÓN DE NAVIDAD

## ABENDUA / DICIEMBRE

24, ASTELEHENA / LUNES  
• 17:00 Ondo etorria olentzerori. Recibimiento a olentzero (portuan).

26, ASTEAZKENA / MIÉRCOLES  
• 12:00 Filma. Película.

27, OSTEGUNA / JUEVES  
• 12:00 Antzerkia. Teatro.

30, IGANDEA / DOMINGO  
• 13:00 Gabon kontzertua (Portuan). Concierto de Navidad en el puerto.

## URTARRILA / ENERO

2, ASTEAZKENA / MIÉRCOLES  
• 12:00 Filma. Película.

3, OSTEGUNA / JUEVES  
• 12:00 Ipuin-kontalaria. Cuentacuentos.

5, LARUNBATA / SÁBADO  
• 17:00 Erregeen kabalgata. Cabalgata de Reyes.

ABENDUAREN 27tik URTARRILAREN 4ra / DEL 27 AL 4 DE ENERO:  
• Erakusketa Kultur Etxean: katedral eta Jauregi maketak.  
• Exposición en la Casa de Cultura: maquetas de catedrales y palacios (Luis Rico Pinilla).

